



*Ajangizko Udala*

## **AJANGIZKO UDALAK 2010EKO URTARRILAREN 21EAN OSPATUTAKO EZ OHIKO BILKURAREN AKTA.-**

**Batzarreratuak:**

**Alkatea:**

*Koldo Carbonell Oihartzabal jauna*

**Zinegotziak:**

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna  
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea  
Beñat Erezuma Arisketa  
Roman Etxeandia Zabala*

**Idazkaria:**

*Saioa Pineda Aranburu andrea*

Ajangizko Udaletxean, 2010eko urtarrialren 21ean arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ez ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, bilera hasi du.

### **1.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO II. FASEKO LANEN 3. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udalak 2009ko irailaren 3an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabieda egokitzeko lanak (II. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 248.894,20 euroko kostuarekin.

2009ko azaroaren 5ean ospatutako bilkuran, lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak, aurkeztutako 16.944,94 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A09-176 faktura onartu ziren.

2009ko abenduaren 14an ospatutako bilkuran, Ortiz de Zarate jaunak aurkeztutako 45.018,52 euroko lanen 2. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako A09-188 faktura onartu ziren.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen 3. ziurtagiria aurkeztu du 138.450,44 euroko kostuarekin.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 138.450,44 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako A09-209 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebatzen du:



## **Ajangizko Udala**

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen II. faseko hirugarren ziertagiria onartzea, 138.450,44 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 138.450,44 euroko kopuru orokorra duen A09-209 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

### **2.- MENDIETA AUZOKO HERRIKO PLAZA EGOKITZEKO PROIEKTUAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-.-**

Alkate Udalburuak, urriaren 26ko 13/2009 Erret Dekretu Legeak sortzen duen Tokiko inbertsionarako Estatu mailako fondora Ajangizko Udalak aurkeztu asmo duen proiektua aurkeztzen du. "Mendietako plaza egokitzeko proiektua" Monika Agirre Zamakona eta Oihana Zabala Arrazola arkitektoek egin dute. Proiektuaren helburua, Mendietako plazak dituen gune desberdinei bateratasun bate matea da, lurzorua egokitu eta haur jokoen gunea atonduz. Proiektuak lurreen bi motatako zoluak jartzea, saneamentua egokitzea, altzariak jarri eta arbolen mantenimendurako beharrezko lanak aurreikusten ditu.

Proiektuaren aurrekontu orokorra 48.108,00 eurokoa da.

Proiektua aurkeztuta eta botaziora eramanda, bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute.

Halaber, Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, aho batez, Udaletxeko Idazkaria dan Saioa Pineda Aranburu Andrea Ajangizko udalerriko ordezkari modura ahalmentzen du, urriaren 26ko 13/2009 Erret Dekretu Legeak araututako dirulaguntza eskaera egiteko.

### **3.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO III. FASEKO LANEN ESLEIPENA BEHAR BADA.-**

Ajangizko Udal Osoko Bilkurak, 2009ko abenduaren 14an, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen (III. Fasea) proiektua, administrazio baldintza zehatzen agiria eta preskripzio teknikoaren orria onartu zuen, esleipen prozedurari hasiera emonaz.

Sektore publikoko kontratuak arautzen dituen Legeak jasotzen duen publikidadedun prozedura negoziatua aplikatuz, deialdia Ajangizko Udaleko kontratazio profilean argitaratu zen.

Deialdiari lau enpresak erantzun zioten:

- Construcciones Areza S.L.
- Construcciones Intxausti S.A.
- Inconor S.L.
- Aragón Alquiler de Maquinaria S.A.

Proposamenak aurkezteko gonbidapena lau enpresei egin ondoren, honako enpresa hauek aurkeztu zituzten proposamenak:



## Ajangizko Udala

- Construcciones Areza S.L.
- Construcciones Intxausti S.A.
- Aragón Alquiler de Maquinaria S.A.

Aurkeztutako proposamenak aztertuta eta Kontratazio mahaiak egindako proposamena aintzat hartuta, Osoko Bilkuran batutako zinegotziek aho batez adostu dute:

**Lehenengo.-** Maier-Mendieta landabieda egokitzeko lanak (III. Fasea) behin-behinez CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea, guztira 180.652,46 euroko kostuarekin, Baldintza Partikularrak arautzen dituen Pleguak jarritako gainerantzeko baldintza guztien arabera, beti ere, kontratistak eskeinitako gainerantzeko zehazketak kontutan hartuta.

**Bigarren.-** Behin-behineko esleituari pleguaren ondoriozko betebeharrak betetzeko agintzea, eta bereziki 21. atalean azaltzen den behin-betiko bermea jarri dezala.

**Hirugarren.-** Ebazpen honen berri interesdunei ematea, jakitun izan dadin eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

### **4.- MENDIETAKO FRONTOI ESTALIA ERAIKITZEKO LANEN ESLEIPENA, BEHAR BADA.-**

Ajangizko Mendieta auzoan estalitako frontoia eraikitze lanen kontrataziorako prozeduran Kontratazio Mahaiak 2010eko urtarrilaren 19an egindako esleipen proposamena kontutan hartuta.

Proposamenen baloraziorako administrazio baldintza partikularrek arautzen dutena kontutan hartuta.

Erabilitako esleipen baldintzak honakoak izan dira:

A) Lan Planaren egutegia. 20 punturaino.

B) Memoria. 20 punturaino

Prezioa: aurkeztu direnen artetik merkeenari 60 puntu emango zaizkio, gainerantzekoak lortutako emaitzen arabera alderantziz proportzionalki baloratuko dira.

Proposamena eta parte hartzaile bakoitzak aurkeztutako eskaintza aztertuta, horietako bakoitzak honako puntuazioa jaso du:

	Enpresa	Jasotako puntuazioa
1	UTE Construcciones Zabalandi S.L. / Asfaltados y Construcciones Morga S.L.	86,49
2	Aiurdin Obras, S.L.	80
3	UTE Infracoman S.A. / Zanjadores y Desmontes S.A.	69,64

Adierazitakoa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurara bertaraturako zinegotziek aho batez onartu dute:



**Ajangizko Udala**

**Lehenengo.-** Ajangizko Mendieta auzoan frontoi estalia eraikitzeko lan kontratuaren behinbehineko esleipena Construcciones Zabalandi S.L. eta Asfaltados y Construcciones Morgia S.L. enpresen artean osatu beharreko enpresen bateratze tenporalaren alde egitea, 718.713,79 euroko kostuarekin.

**Bigarren.-** Behin-behineko esleituari pleguaren ondoriozko betebeharrak betetzeko agintzea, eta bereziki 9. atalean azaltzen den behin-betiko bermea jarri dezala.

**Hirugarren.-** Ondoren adierazten diren parte hartzeileek aurkeztutako behin behineko bermeen kanzelazioa aldarrikatu eta berme horien itzulketa agintzea:

Enpresa	Data	Nº
Montajes Infracoman S.A.	08-01-2010	Caja Laboral 2010000946
Aiurdin	05-01-2010	Transferencia bancaria

**Laugarren.-** Ebazpen honen berri interesdunei ematea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederlatziak eta bost direnean, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

**ALKATEA**

**BITARTEKO IDAZKARIA**